

Sabina Azkue Fernandez

*Getaria,
Gipuzkoa
(1926-2015)*

Aurkibidea

Biografia



Getariako Elkano kalean jaioa, beti herrian bizi izandakoa. Txiki-txikitatik Getariako kontserba fabriketan lan egin zuen. Gizona arrantzalea zuen, eta despeskan eta sare-konpontzen ere aritu izan zen.

Zintak

GET-010

• **Proiektua:** Getaria: euskara eta itsasoa

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2006-11-02
- **Iraupena**: 58 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k)**: Zabaleta Zuloaga, Miren

GET-011

- **Proiektua**: Getaria: euskara eta itsasoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2006-11-02
- **Iraupena**: 23 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Sabinaren senarra 'Bou Navarra'ko naufragoa zen

- **Erref**: GET-010/002
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:01:35. **Bukatu**: 00:02:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Sabinaren senarra arrantzalea zen: Periko De la Hoz Kintana, Bou Navarrako naufragoa. Gerra garaian, itsasontziak bataila izan zuen, eta 50 lagunetik 17 atera ziren bizirik, euren artean bere senarra. 20 hilabete kartzelan egin ostean, Calderón komandanteak libratu zituen heriotza-zigorretik.</p>

Transkripzioa

- Eta familiya, biyok zeneukaen getaiarra familiya?
- S: Bai, nik gizona nun, zea, arrantzalia, baiño Zarautzan jaidxua zan. Eta "Bou Nabarra"ko naufragua zan. "Bou Nabarra" aitu al dezu behiñ'e?
- Ez.
- S: Ez? Gerra denboran "Bou Nabarra" ez? Libruak'e badabe ateata...
- Bai, e?
- S: ... gure gizonan izenian, Perico Quintana. [...] zan, baiño Quintana. Ta librua daka ateata "Bou Nabarra" kua. Canariasen enfrentatu zian, Canarias, bafore haundixak...
- A, bai.
- S: ... enfrentatu zian. Ta hamazazpi geatu zian "supervivientes" berrogeta hamarretik. "Ya está bien, eh?" Eta Calderon, "comandante Calderón"ek salbatu zitun "de pena de muerte", "a la calle" atea zituen. Franco denboran hogeï hillabete kartzelan inda nere gizonak. "El Bou Nabarra", bai.
- Ba, hori, hori interesantia da.
- S: Hori jakin [...], librua ekarriko nizun. Baiña ez nakan hemen, alaban itxian nakan.
- Baiña gero, gero galdetuko dizuet.

2. Askizuko eskola; irakaslea Logroñokoa

- **Erref:** GET-010/003
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:04:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Askizuko eskola eliza eta Eugeniaren etxearen artean zegoen, gaur egun elkarte dagoen lekuan eta bertara joaten ziren inguruko baserrietakoak. Irakasle ona zuten, Logroñokoa baina Getarian bizi zena Zabala baserrian. Klase partikularrak ere ematen zituen iluntzetan.

3. Doña Paz irakaslea

- **Erref:** GET-010/004
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:07:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Sabina kalean ibili zen eskolan doña Paz irakaslearekin. Falangista omen zen eta sartu orduko Cara al Sol abesten zuten. Antxoei burua kentzen lan egin behar izaten zuten eta eskolara gutxi joaten zirenez, joandakoan makilakadak jasotzen zituzten. Irakasle gogorra zen. Senarra ere irakaslea zen eta kanpokoak ziren. Gauza oinarrizkoak ikasten zituzten eskolan. Irakasle asko "entxufatuta" etortzen zirela uste dute. Mutilen eskolan egon zen irakasle batek ezer ez omen zekien.</p>

4. Askizuko irakaslea: doña Maxima

- **Erref:** GET-010/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:07:18. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Eskolan gaztelaniaz hitz egin behar izaten zuten, bestela zigortu egiten zituzten eta. Askizun zegoen irakaslea (doña Maxima) ere kanpotarra zen, baina "suabea" zen.</p>

5. Baserrian maiorazgoarentzat izaten zen dena

- **Erref:** GET-010/006
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:09:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Eugeniaren etxean 8 senide ziren eta Sabinarenean 10. Baserrian maiorazgoarentzat izaten zen dena eta besteak hara edo hona joan behar izaten ziren lanera.

6. Bakoitzak abrigu bat eta zapata pare bat

- **Erref:** GET-010/007
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:09:32. **Bukatu:** 00:11:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Lehen ez zen arroparik aldatzeko aukerarik izaten; igandetan arropa hobetxoak, baina bestela arropa berdinarekin. Erromeriara oinetako zaharrekin joan, han ibiltzeko berriak jantzi eta etxerakoan berriz zaharrak. Oso arropa gutxi izaten zuten lehen, bakoitzak abrigu bat eta zapata pare bat.

7. Lehen gehiago begiratzen zitzaion auzokoari

- **Erref:** GET-010/008
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:13:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Seme-alaben heziketa etxeoen arabera dela diote. Lehen gehiago begiratzen zitzaion auzokoari, zer egiten zuen, nola jantzita zegoen... Lan egin behar izaten zuten umetatik eta ez zuten etxeoekin hitz egiteko astirik izaten. Lehengo bizimodua zeharo desberdina zen, ez zegoen gaur egungo erraztasunik. Xaboa beraiek egiten zuten etxean. Oliorik ez zuten izaten (errazionamentua).</p>

8. Neska-mutilak pilotan Askizuko frontoian

- **Erref:** GET-010/009
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:13:48. **Bukatu:** 00:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Frontoiaren atzealdean kanikatan ibiltzen ziren. Xakaponak. Sokasaltoa. Eugenia pilotan aritzen zen auzoko neska-mutilekin Askizuko frontoian. Bera oso abila omen zen. Ez dituzte sokasaltoko abestiak gogoratzen.

9. Francoren garaian altabozetik jartzen zuten musika plazan

- **Erref:** GET-010/010
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:16:20. **Bukatu:** 00:17:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Igandetan 10tan meza nagusia izaten zen eta ordu laurden lehenago txistulariak pasatzen ziren meza iragartzeko. Gero musika bandak jotzen zuen berdura plazan. Francoren garaian banda kendu eta altabozetik jartzen zuten musika plazan.

10. Lastoarekin argi eginda Askizutik kalera mezara eta esnea saltzera

- **Erref:** GET-010/011
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:17:58. **Bukatu:** 00:20:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

<p>Askizuarra goizeko lehenengo mezetara etortzen ziren, 06:30ekora. Lastoa piztu (suarekin) eta harekin argi eginda etortzen ziren esneak astoan hartuta kalera. Mezara igandetan bakarrik etortzen ziren, baina esnea saltzera egunero.</p>

Transkripzioa

- E: Gu mezeta etortzen giñanian goizeko...
- S: Seietako.
- E: ...seietako mezetako Getaira Askizutik. Lastua piztu ta haekin birian zatozela, astua esniakiñ ta...
- S: Aurretik.
- E: ... atzetik, aurretik astua.
- S: Ta zuek lastua.
- E: Ta geo lastua hola pixtuta, haren argitasunakin illunpetan...
- S: Pentsa zazu.
- E: ...Getaira.
- S: Bai.

- E: Goizeko sei t'erditako hortxe izaten zan meza.
- S: Bai. Sei t'erditan lehenbizikua.
- E: Seiretako itxetik erten, esniak danak hartu astuan, ta geo argiya itzalduta igual geatzen ziñan birian illunpetan.
- S: Illunpetan, hori earra!
- E: Non etorri asmatu eziñian! Holaxe. Holaxe.
- S: Oso bizitza diferente. Oso diferente.
- Eta lasto, lasto pixkat hartu, ta...
- E: Bai, bai. Lasta, lasto bat, holako zea bat izaten zian, ta hua...
- S: Seituan erreko zan hua, Eugeni.
- E: E?
- S: Seituan erreko zan.
- E: Deskuidatzen baziñan, euriya o haixia bazan, haixia [...], ta hurruna berriz batez, ta illunpetan igual pausua non eman asmatu eziñikan.
- Biria're txarra.
- E: Bai, bai.
- S: Biria're txarra. Oso txarra.
- E: Bai.
- S: Oso txarra.
- E: Egualdi onian zeoze. Txarrian gaixki.
- Txarrian gaizki. Eta hori egunero?
- E: E?
- Egunero seietako...
- S: Igandetan, igandetan.
- E: Ez, igandetan. Mezetako kontu hori igandetan.
- Eta bestela, esne-partitzen eta?
- E: Eunero. Esne-partitzea eunero. Bai. Eunero.
- Eta gozian, ez? Goizian goiz.
- S: Goizian beti.
- E: Bai. Goizian, beti goizian. Bai, atzea. Hoiiek, lan hoiekin ta, beatzi t'erdiyak, hamarretako atzea buelta in ta etxea juten giñan, ta.
- S: Etxea.
- E: Lan hoiiek danak inda, ta. Puf!
- Hamarretako etxian.
- E: Geo etxea jun ta gosaldu. Leheno taluak eta izaten zian, ba?
- S: Talo ta esnia.
- E: Talua ta arrautza prejittua urdaiakin ta jan, talua ez [...] katilluka, ta holaxe.
- S: Halaxe hazitakuak.
- Esan dezuna, lasto honek, sua emandako lasto honek, izenik bazeukan?
- E: Ez.
- S: Lastuak izena?
- Lastua ta sua, o...
- E: Bai, izena...
- Bidia argitzeko, e..., suziya, o? Lastakua, o?
- E: Izena ez dakit nola esaten ziyoen, ba!
- S: Lastuakin iten zendun... Ez dakit.
- E: Bai. Ixena ez dakit ze ixena.
- S: Antortxa ezin esango diyoun, antortxa.
- E: Ez! Aparteko ixenik ez dakit hark zer izango zun.
- S: Holaxe ba.

11. Arrain nahikoa zutenez, haragia nahiago

- **Erref:** GET-010/012

- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:20:22. **Bukatu:** 00:23:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Taloak egiten zituen amak eta arrautzak edo katilukada esnearekin jaten zituzten gosaritan baserrian. Bazkaltzeko babarruna urdaiarekin. Kanean ez zen egoten baserrian beste janari. Jai egunetako menua garbantzuak eta zopa eta bakailao-patata edo haragi-patata izaten zen. Arrain nahikoa izaten zen lehen eta haragia nahiago izaten zuten. Eugeniren osaba barkuko patroia zen eta hark ekartzen zien arraina.

12. Soineko luze-luzeekin bainatzen ziren hondartzan

- **Erref:** GET-010/014
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:23:54. **Bukatu:** 00:26:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Hondartza zaleak izan dira beti. Antxoa-lanera sartzerako hondartzara joaten ziren, goizeko 7tan. Izara zahar batekin lehortzen ziren. Jesuitek aldatzeko txabolatxo batzuk izaten zituzten eta bertan aldatzen ziren. 11ak aldera beraneanteak etortzen ziren eta haiek etortzerako herritarrek alde egin behar. Orduan dena zen bekatu eta meza eta bezperetara joan beharra izaten zuten. Bainujantzirik ez zutenez soineko luze-luzeekin bainatzen ziren.

13. Herriko jaiak eta Meagako erromeria

- **Erref:** GET-010/015
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:26:46. **Bukatu:** 00:29:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Jaietan, frontoian txaranga egoten zen. Limonadak saltzen zituzten orduan edateko. Dantzaz zebiltzala gertatutako anekdota kontatzen du Sabinak. Salvador eta San Anton festak ospatzen ziren. Gerraostean, gramola jartzen zuten plazan. Meagako erromeria. Baserriko jendea igandero joaten zen erromeriara.</p>

14. Pelikula bat ikusteagatik kongregaziotik bota zuten

- **Erref:** GET-010/016
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:29:50. **Bukatu:** 00:31:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Mutilekin ligatzeko modu bakarra erromeria izaten zen. Hala ere, mutilekin dantza eginez gero kongregaziotik botatzen zituzten neskak. Sabina pelikula bat ikustearren bota zuten kongregaziotik.</p>

15. Meagako erromeria

- **Erref:** GET-010/017
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:31:00. **Bukatu:** 00:31:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Meagako erromerian jende ugari biltzen zen.

16. Janari-denda izan du Eugenik

- **Erref:** GET-010/021
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:39:00. **Bukatu:** 00:40:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Eugeni baserritik kalera joan zen bizi izatera eta anaiarekin janari-denda jarri zuen. Denetarik saltzen zuten. Goizeko lauretan jaiki eta Donostiara joaten zen fruta bila. Gero handik etorri, gosaldu eta dendan pasatu egun guztia.</p>

Transkripzioa

- Lehen esan dezu baserritik herrira etorri zifñala bizi izatea?
- E: Bai.
- Eta zergatik edo?
- E: Hogeita hamaika urtekiñ etorri nitzan ni honea zeakiñ, anaiakiñ. Ta in gendun denda jarri geo hemen.
- S: Hamentxe denda.
- E: Ta orain arte, iya oaiñ arte.
- S: Bai, denda euki due.
- E: Hogeita hamaika urtian hementxe dendakin.
- Ze denda zan?
- S: Komestibliak.

- E: Komestibliak. Bai. Ta geo komestibliak eukiyagatikan mantak eta maindiriak eta zea...

- S: Honek danetikan saltzen zun.

- E: Danetik saltzen genittun.

- S: Honek danetikan saltzen zitun.

- E: Bai, ordun. Bai.

- S: Tratante goorra zan ta!

- E: Bai!

- S: Tratante goorra.

- E: Goizeko lauretan jaiki ta fruta billa Donostira, astian hiru bat biaje, lauretan, goizeko lautako jaikita. Axier ta biyok... Joxe Inaxio ta biyok...

- Trenian o...

- E: Atzea zazpiretako etorri...

- ... autobusian, o?

- S: Semiakin kamionian. O furgonetan eo.

- E: Bai. Geo goizeko zazpiretako atzea hemen etorri ta bazkaiak eta gosaiak eta, lan danak iñ ta, denda ta... Gizona lanian, artian semia... bai, uain bai, baiño... Gizona're taillarrea juten zan lanea, ta hementxe.

17. Sarea azkar konpondu behar izaten zen marinela berriz itsasoratzeke

- **Erref:** GET-010/022
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:40:22. **Bukatu:** 00:44:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Sabina sarea konpontzen ibiltzen zen. Edozein ordutan deitzen zieten eta sarea azkar konpondu behar izaten zen marinela itsasoratzeke zain egoten ziren eta. Lurrean eseri eta josi egiten zuten apurtutako sarea. Lehenago kotoizko sareak izaten ziren eta tindatu ere egin behar izaten zituzten; gerora nylonezkoak izaten ziren. Udaberrian, antxoa garaian, egiten zen sare-konpontzea.

Transkripzioa

- Eta pentsatzen det, hamen Getaian, emakume asko, modu batian o bestian, beti arrantza kontuekin ere ibiliko ziñetela?

- S: Oin gutxidxo, e!

- Baiña zuen, zuen gazte denboran normala izango zan, ez? Zuk esan dezu umetatik...

- S: Bai, ni sare-konpontzen ibiltzen nitzan. Ni saria konpontzen, gizona mariñela nuan, ta... Geo baforia're bazun, armadoria zan, ta... Derrior sarian ibili bihar izaten gendun... Saria konpontzen ibili bihar izaten gendun.

- Jarriko dizut, zuri jarriko dizut eta...

- S: E?

- E: Bai.

- Zuri jarriko dizut hau, eta...

- E: Jarri, bai.

- Eta kontatuko diazu sare-konpontzaille kontu hoiek nolakuak izaten zian, ta...

- E: Horrek esango dixkizu, ondo dakixki.

- S: Bai, han izaten giñan, bai. Eozein ordutan deitzen ziguen saria puskatu zula ta saria konpontzea moilla gaiñea goizeko ordu bitan igual, ta eguna hasi bai, konpondu zai eoten zian itsasoa juteko.

- Eta ze izaten zan, bafore bakoitzak bi edo hiru andre izaten zitun, e...?

- S: Bai, bai, bai. Asko bihar bazian, asko. Zeatik askotan etortzen zian saria dana puskauta ta piezak falta zitula, ta. Hua in in bihar zan, uain bezelako aukerik ez zeon orduan sare asuntuan, ta. Orduan in bihar izaten zan azkar ta dana eskuko lana izaten da, eskuko lana.

- Eta nola izaten zan? Kontatuko diazu?

- S: Eskuko lana.

- Nola izaten zan...

- E: Sariena?

- S: ...sari-konpontzia eta?

- E: Sari-konpontzia, jostorrazakin ta...

- Bai, bai, baiña nola?

- S: Nola iten zan? Ixerita. Bai. Oseake, dibujo hori ikusten dezu? Dibujo hori. Ba, igual-igual in behar izaten zan. Dibujo horren iguala in ber dezu / bertzu/. Saria hola da, e? Ta hori in ber dezu /bertzu/ "tejer". Igual-igual in behar izaten dezu.

- Josi?

- S: Josi. Falloik gabe. Hala in behar izaten zan. Ta gizonak zai eoten zian itsasoa juteko. Halaxe.

- E: Hauek konpondu zai.

- Eta ze... ze ibiltzen zan?

- S: Hari algodoiak.

- Algodoia.

- S: Geo hasi zan nylona. [...] Algodoia zanian gaiñea in behar izaten gendun tintatu tintalekuan. Ta gizonak itsasuan baldin bazian geuk ahal bagendun. Gizon pare bat hartu lehorrekuak launtzeko sariak jasotzen ta, astunak izaten zian ta. Ta tintatu, lehortzen euki., ta horrela. Geo nylona azaldu zan, ta harekin salbatu giñan. Ta oan, berriz, hain haundidaxak dazkae, ez due ia lehen bezelako lanik hartzen, porke... Gaur goizian eon naiz batekin. Esan diot, "ze, sarea konpontzea al zuaz?", ta "bai". Ta, "lehen bezela segitzen al dezue /altzue/?" Gu urte asko geauta geo. Ta esan zian "Ez! Lehen bezela? Pentsatu're ez" esan zian. "Lehen bezela? Ikusiko bazenduke uan ze sare dazkaun? Herridxa baiño haundidaxuak dazkau! Eta hau ez dao harrotzeikan lehen bezela". Lehen iten genduzen, ba, geuk, ahal zan bezela. Baiña oan ezta pentsatu're. Oan haundidaxak ziharo.

- Eta lehen, sare zati bat apurtzen baldin bazan, ze egiten zan? Beste sare zati bat hartu ta...

- S: Peatu. Pusketa falta bazun, pusketa jarri. Ta bestela, "tejer".

- E: Jostia, bestela.

- S: Bai, josi. Zergatik xulo bat ikusten bazuen gizonak, handik arrai asko jun zeikien, bakizu, zulua.

- E: Igesi.

- S: Igesi iten.

- Eta hori gutxi gorabehera eguneroko lana izaten zan?

- S: Euneroko lana, gutxidxo o gehidxo, primaveran, e? Primaveran. Geo ibiltzen zian neguan, ba, bixigutan, papalardua ta. Arraidxa ederra pranko jan deu saldu eziñik hemen kalian bixigua. Saldu eziñik hemen kale ertzetan jarrita, ze bixigu eder ta ze arrai eder!

- E: Bai! Haiek bai bixiguak!

- S: Jesus, Maria ta Jose! Haiek bai ziena gauzak!

- Sare-konpontzia izaten zan udaberrian, antxua sasoian.

- S: Bai, orduan. Ta geo udaan'e bai, garnaata itea juten zinian, hemen

bertan, Oridxoko [kanpo...] puskatu zuela, ta. Baiño, ez. Gehidxena primaveran, sare asuntua. Holaxe.

- Eta beti, bi hiru emakume beti bafore bateko sariak konpontzen.

- S: Derrior. Derrior, derrior. Karruan eon behar zan, bai. Ni baiño maextraguak bazian, ta han ibiltzen zian haidxek.

- E: Geo kuadrilla haundiyak'e bai, lan asko zuenian.

- S: Bai, bai, bai, bai, bai.

18. Sareak tintatu egiten ziren konserbatzeko

- **Erref:** GET-010/023
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:44:36. **Bukatu:** 00:48:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Sare-konponketa lanak gutxitzen ari direla komentatzen dute. Gazteek ez dute lan hori egin nahi. Barzelonan sareak josteko makina bat atera omen dute. Sareak lehen Barzelonatik ekartzen ziren. Sareak tintatu egiten ziren lehenago konserbatzeko. Tintalekua non zegoen. Tinta koskortsua irakin tina handietan eta bertan sartzen zituzten sareak. Sareak astunak izaten ziren eta gizonezkoen laguntza behar izaten zuten tintatzeko garaian.

Transkripzioa

- S: Oain, hori're gutxitzen ai da. Gaztiak ez due nahi sareik konpondu eta lehenguan batek esan zian, "Ez dakit ze ikusi behar deun!". Zaharrak erretirutzen ai dia eta gazteik ez dator. Ze in behar da?

- E: Gaxtiak'e... Lan astuna da hori, ta!

- S: Eta esan zuela, esan zian batek. Barzelonan ai zila ateatzen makina bat "para tejer".

- Josteko.

- S: [...] Barzelonatik etortzen dia en jeneral sariak eta gauzak. A! Auan ikusi in behar "si resulta o no". Baiña hor eskua beti behar da emakumiana. Armatzeko ta daneako, hor eskua beti behar da, gaiñian.

- Lehen sariak nundik ekartzen zian?

- S: Barzelonatik en jeneral.

- Lehen'e bai, e?

- S: En jeneral Barzelonatik.

- Oain dala berrogeita hamar urte're bai, e?

- S: Bai, bai, bai. Barzelonatik etortzen zian biajantiak beak, itxiak hartuta eukitzen zituen, e! [...] hobeto esateko. Beti Barzelonatik. Beste non o nondik ekarriko zian, oan ni... Aspaldi, esan dizut, aspaldiko urtetako kontuik ez dakit, ez dakit. Baiño jeneralmente Barzelona erabiltzen zan. Bai.

- Eta... esan dezu, tintatu're iten ziala, ez?

- S: Hori lehen, algodoiak bai. Baiño uan ez.

- Eta tintalekua esan dezu...

- S: Tintalekua hor nola dao oan Myflower? Horren behian zan tintalekua. Estreña zan, beno, mataderua godxan.

- E: Bai.

- S: Te geo behian tintalekua.

- E: Bai.

- S: Hor tunel bat bado, ba, hor behian? Zean, txiringituan pare hortan?

Hor, hortxe zan tintalekua. Hor tintatzen zian sariak. Konserbatzeko, konserbatzeko.

- Oain, tintatu ta...

- S: Lehortu. Algodoia konserbatzeagatik izaten zan. Ta geo atea zian habek, nylona, ta... puf!

- Eta tintatu nola iten zan?

- S: Ba, tersa jarri, zea batzuk, e, tinta esaten zan...

- E: Koskorra.

- S: Koskorra bezela. Hua irakin in behar izaten zan. Irakin in behar izaten zan koskor hua, deseindu.

- Tiña, tiña haundi batian [...], edo?

- S: Bai, tiña, ontzi, zea [...], deposituak.

- Deposituak.

- S: Deposito haundidxak zaben hor. Ta hua in behar izaten zan disolbitu, dana likido jarri ta han sartu. Alkitrana're eman izan diyou, alkitrana're. Puf! Ta geo gabian, hua eman ta, umiakin komerita plaza. Komeridxak izaten zian orduan, komeriantiak.

- E: Ordun bai!

- S: Eta gu etorri zai orduan ume danak banko txikidxakin plazan, komeridxa ikusteko zai.

- E: Ume ta andre!

- S: Honbre! Gustora gu're! Geo, uan zea dakau, telebista, baiña orduan gustoa asko eoten giñan komeriantia ikusten.

- Eta tintatzia emakumian lana izaten zan, o?

- S: Gizasemiana, hobeto gizasemiana, baiño gizonik ez bagendun, ahal zan bezela, norbeak moldatu bihar.

- Astuna izango dalako, ez?

- S: E?

- Astuna, e...

- S: Astuna. Oso astuna.

- E: Bai.

- Sariak eta moitzia...

- S: Oso astuna, oso, oso.

- E: Oain...

- S: Beti izaten zan baten bat laguntzeko, e! Gizasemen bat o beste beti izaten zan. Geo karroa ate hua, busti-busti inda, ta geo handik zabaldu. Ta geo lehortu.

- Kaian?

- E: Lehengo sariak...

- S: Kaian zabaldu ta lehortzen segi, denboa guztidxan...

- E: Lehengo sariak gaiña astunak oainguan aldian.

- S: Bai, algodoia... Jesus!

- E: Jesus!

- S: Konparatu. Astuna? Hoixe zan, ba, astuna!

- E: Hoi ba! Lehenguak ziharo astunak.

- S: Bai, oso astunak'e.

- Eta tintatzia ze izaten zan, astian behin edo hillian behin, o...?

- S: Hoixe ez dizut /etxut/... Ez naix gogoratzen! Hillian behin ez. Hillian behin ez, baiña... Bastante zean bai. Hillian behin, o bi hillabete izango zan. Ez dizut /etxut/, hori ez dizut /etxut/ kalkulatu. Hortako bestiak gehidxo zeaten zian ta. Baiña oso-oso astuna lana.

19. Udaran komedianteak egoten ziren plazan

- Erref: GET-010/024

- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:48:24. **Bukatu:** 00:50:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Udaran komedianteak etortzen ziren plazara eta umeak haiek etortzeko zain egoten ziren. Lehen herri hila omen zen Getaria eta gaur egun umeek edozer egiteko askoz aukera gehiago dutela komentatzen du Sabinak.

20. Matxitxakoko itsas bataila bizi izan zuen bere senarrak

- **Erref:** GET-010/026
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:51:20. **Bukatu:** 00:52:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra garaian, bere senarra eta beste marinel batzuk Santurtzi ingurutik bakailao-ontzi txiki batean irten ziren, eta aurre egin zioten Canarias gerrako itsasontziari. 50 lagunetatik 18 geratu ziren bizirik, euren artean bere senarra.</p>

21. 'Canarias' ontziko komandanteak atera zituen kartzelatik

- **Erref:** GET-010/028
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:53:32. **Bukatu:** 00:55:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Matxitxako inguruan izan zen bere senarraren ontziaren eta Canarias gerrako itsasontziaren arteko bataila. 50 lagunetatik 18 atera ziren bizirik. Bizirik geratu zirenak preso hartu zituzten. Bere senarrak 20 hilabete egin zituen preso heriotza-zigorra jarrita; eta, azkenean, Manuel Caldera Canarias itsasontziko komandanteak atera zituen kartzelatik. Hiru getariar zihoazen Bou Nabarra itsasontzian.</p>

22. Herriko emakumeak "Margarita" (errekete) jantzita gerra garaian

- **Erref:** GET-010/029
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:55:28. **Bukatu:** 00:56:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

<p>Gerra oso presionatuta bizi izan zuten. Komandante bat etortzen zen, fusila hartuta, meza nagusira. Zenbait emakume derrigortu egiten zituzten "Margarita" (erreketea) janztera. Bi emakume garaienak jartzen zituzten Espainiako bandera eta falangekoa eramaten; eta, atzetik, umeak egurrezko fusilekin Cara al Sol abesten.</p>

23. Aldamar jauregiaren ingurua nolakoa zen

- **Erref:** GET-011/001
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Getaria asko aldatu da. Kaleak ez dira asko aldatu baina bai portua eta herri gainkaldea. Lehen baratzeak zeuden herriaren goiko partean. Inguru hori nolakoa zen. Aldamar jauregia. Lorezainaren etxea eta inguruko terreno guztiak Aldamar-ko markesarenak ziren. Beraiek ez zuten ezagutu, baina udan etortzen omen zen. Fabiolaren ama egoten omen zen Aldamarren. Balentziaga museoaren inauguraziorako etorriko ote den komentatzen dute.</p>

24. Getaria erdia Aldamarko markesarena

- **Erref:** GET-011/003
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Aldamar-ko markesak, Fabiolaren aitona, esaten zuen esaera: "Desde Mollarri a Pintxoarri todos los campos míos". Herriko hainbat eraikin handi ere bereak ziren.

25. Errepide nagusitik gorako dena baratzea zen

- **Erref:** GET-011/004
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Errepide nagusitik gorako guztia baratzeak ziren. Rosaneko etxea esaten ziotena bakarrik zegoen. Baratzeak herriko jendearenak izaten ziren, bakoitzak pusketa bat zuen. Babarruna, patata... hainbat jenero egiten zen. San Anton mendian, ostera, patata bakarrik egiten zen.</p>

26. San Anton mendian lehenengo patata, gero parkea

- **Erref:** GET-011/006
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Aginaga sekretarioak jarri zuen legea San Anton mendian parkea egin behar zela. Jendeak uste zuen gosez hilko zela patatarik ezean eta larritu egin ziren. Sabinaren familiak ere bazuen terreno sail bat. Lurra ontzeko antxoak botatzen zituzten soroan. Sailak diputazioarenak ziren, baina herritarrek lantzen zituzten.

27. Herrerieta kaleko kale-baserriak

- **Erref:** GET-011/008
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Herri gainkaldean, baratzeak ziren lekuan baziren kale-baserriak ere (gaur egun Herrerieta kalea): Gaxparrenekua, Krixketanekua, Agarrenekua, Iñarranekua... 6-7 kale-baserri zeuden kale horretan, bakoitza bere ganadurekin.</p>

28. Indaux lantegiak bizia eman zion herriari

- **Erref:** GET-011/009
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:08:25. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Lehen Getarian ez zegoen itsasoa beste lanbiderik. Gero Indaux-ek fabrika jarri zuen eta ondoren Alkortak eta herriari bizia eman zioten. Lehen itsasoa zenez bizibide bakarra, arraina harrapatuz gero ondo, baina bestela dirurik ez zen izaten.

29. Kontserba fabrikako lanak

- **Erref:** GET-011/010
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:11:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Sabina umetatik hasi zen lanean arrainei burua kentzen. Latetan kontserbarako jartzeko burua kendu behar izaten zitzairen. Arrain handiak 5-10 kiloko potetan jartzen zituzten eta horiek Italiara salduta egoten ziren. Antxoa txikiekin fileteak egiten zituzten neguan.

30. Despeskako lanaren inguruko azalpenak

- **Erref:** GET-011/011
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:15:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Goizeko ordu txikietan despeskara joan behar izaten ziren emakumeak, arraina saretik libratzera. Hura arrain ederra izaten zen. Goizaldean arrainarekin iristen zirenean etxez etxe joaten ziren despeskarako emakume bila. Eugenik dio Askizuraino ere joaten zirela. Mallako arraina gehiago ordaintzen zen. Sarritan despeskatik zuzenean joaten ziren gero fabrikara lanera iluntzera arte. Despeskako sareak nolakoak ziren. Gizonezkoek garbitu eta moilan jartzen zituzten gero lehortzen.

31. Egunean egunekoa kobratzen zuten

- **Erref:** GET-011/012
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:15:10. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Emakumeentzat garairik gogorrena udaberria izaten zen lan aldetik. Despeskan egunean egunekoa kobratzen zuten, eta fabrikari lana amaitutakoan, bi-hiru egunean edo. Nagusia italiarra zen. Despeskako lanarengatik erreal bat ordaintzen zieten.

32. Arrainak kontserban jartzeko mimo asko egiten zitzaion

- **Erref:** GET-011/014
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Kontserba fabriketako eta bodegetako lana antzekoa izaten zen: arrain handiak Italiarako latetan jarri eta txikiak filetetarako. Eskuz egiten zen dena eta lan mimatua zen, ikutu asko egiten zitzaion arrainari txukun jartzeko. Herriko emakumezko guztiak aritzen ziren lan horretan eta inguruko herrietatik ere etortzen zen jendea lanera.

33. Atun kontserba; Zumaiako Ortiz fabrika

- **Erref:** GET-011/015
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:22:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Atuna fabrika handietan konserbatzen zen lehenago, baina gaur egun ez, Zumaiako Ortiz fabrikak indar handia du eta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com